

# 18/98

## Herri gisa erantzuteko garaia

Joan den ekainean, Gernikan itxialdia burutu genuenetik sumarioan auzipeturik gauden 52 lagunok epaiketaren zigorrari aurre egiteko elkartasuna elkarlanean bilakatzeko saioan ari gara lanean.

Audientzia Nazionaleko tribunalak emango duen epaia bereziki garrantzikoa izango da Euskal Herriarentzat. Ez soilik bertan ezarriko diren zigorreatatik. Batez ere, epaiak euskal herritarren eskubide zibil eta politikoei begira izango duen eraginarengatik baizik.

18/98 eta beste sumarioetan ematen ari den eskubide urraketa finkatuta geratuko da epaian. Urte luzez, Estatu espainiarraren trantsizioak euskal herritar guztion eskubide zibil eta politikoak zein funtsezko giza eskubideak murriztu eta urratu ditu salbuespen legislazioaren bidez.

18/98ko epaiak eskubideen ukazio horiek sakondu eta Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lanean ari diren herritar eta kolektiboak kriminalizatzeko oinarri berrituak finkatuko ditu.

18/98 sumarioa ez da urrats isolatua izan. Urte luzez Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoaren aurkako jazarpenaren segida da. Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoaren aurkako eraso estrukturala dago horren oinarrian, gero eta talde edo jarduera gehiago bere baitan biltzen duena.

Gazteen aurkako epaiketa eta zigorra hortxe dago. Gure epaiketaren ostean ere, beste batzuk hasiko dira datozen hilabeteotan (Udalbiltza, Egunkaria, GGAA-Askatasuna, Batasuna) akusazioak eta zigorrak pilatzen. Hauei begira, demokrazian bizi eta aritzeko euskal herritarren aukerari begira, eragin zuzena izango du 18/98ko epaiak.

Azken asteotan ikusi dugu PSOEko Gobernuak dituen tresna errepresiboak nola erabiltzen dituen erabat zilegiak diren ideologiak eta jarduerak zigortzeko. Gobernuko bozemaileek azaldu dutenez, gainera, bide honetan jarraitzeko erabakia hartuta dago.

Gernikan zabaldutako Manifestuan esaten genuen bezala, "epaitegiko aulkian eserarazten dituzten lagunak edo erakundeak direnak direlarik, pentsamendu, antolatze eta adierazpen askatasunak ari dira epaitzen eta zigortzen. Demokrazia da epaitu eta zigortzen ari direna".

Gernikatik, eskubide eta demokraziaren defentsan elkarlanean aritzeko deia luzatu genien euskal eragile zein herritarrei. Orain, gure ustez, elkarlanerako urratsak gauzatzeko unea iritsi da. Aipatu dugun bezala, 18/98ko epaia sumario bera baino haratago doa. Euskal Herriaren eraikuntzako zutabe nagusiak kolpatzen ari dira, konponbide demokratikoari ateak itxi eta independentziaren aldeko hautu politikoaren kriminalizazioa finkatzen.

Horreatik hain zuzen ere, 18/98 epaiketa luzearen ondoren epaia ematen den unean Euskal Herriaren aurkako eraso orokorrari behar bezalako erantzuna emateko garaia da. Beraz, 18/98 auzipetuok epaiari eta honen ondorio larriari aurre egiteko deia luzatu nahi dugu indar osoz.

Horretarako epaia ezagutuko den unean **MANIFESTALDI NAZIONALA** deituko dugula iragarri nahi dugu gaur hemen. EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN ALDE, EGITASMO POLITIKO GUZTIEI AUKERA DEMOKRATIKOA izango da lelo nagusia. Hortxe dago gakoa, egun bizi dugun inposizio egoera gainditu eta Euskal Herria eraikitze bideak eremu demokratiko baten garatu ahal izatean.

Dei honekin bat eginez, sektore eta eragile sozial guztiei eskatzen diegu epaiari aurre egiteko presta daitezen eta 18/98 epaiak ekarriko duen demokraziaren aurkako eraso berri horren garrantziaz jabeturik, bakoitzak bere alorrean auzi honen mamia lantzeko. Horri ekiteko bereziki sindikatuekin elkarlanean garatuko litzatekeen **ORDUBETEKO LANUZTEA** burutzearen aldeko deia ere egiten dugu. Datozen egunotan zehaztuko den aukera izatea espero dugu.

Epaitegi eta legedi bereziaz baliaturik, euskal herritarren hitza isildu nahi dute. Euskal gizarteak berak sortutako eragile, komunikabide, instituzio eta antolakundeak desagertu erazi. Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideak bermatuko dituen konponbide demokratikoa da guztion artean eraiki behar duguna. Independentziaren aldeko egitasmoak ere berdintasunean defenditu eta gauzatu ahal dadin Euskal Herrian. Guztion eskubide zibil eta politikoak bideragarriak izan daitezen. Hauxe da gure apustua. Epaia eta zigor guztien gainetik aurrera jarraituko duena.

Euskal Herrian, 2007ko azaroan.

**18/98** auzipetuok

**Atxikimendurako: [1898erantzuna@euskalherria.org](mailto:1898erantzuna@euskalherria.org)**